

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	KAUTXUAREN ETA LATEXAREN TRANSFORMAZIO- ETA BULKANIZAZIO-PRODUKTUAK	Iraupena	30
		Baldintzatua	
Kodea	UF0728		
Lanbide-arloa	KIMIKA		
Lanbide-eremua	Polimeroen transformazioa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Kautxua transformatzeko eragiketak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Kautxuaren eta latexaren nahasketak transformatzeko eragiketak	Iraupena	150
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Kalitatearen kudeaketa eta laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa (Zeharkakoa)	Iraupena	50
	Kautxuaren eta latexaren nahasketen transformazioa eta bulkanizazioa		70

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0327\_2 gaitasun-ataleko LB1, LB2, LB3, LB4, LB5 eta LB6 lanbide-burutzapenekin, kautxu eta latexezko nahasketen transformazio-produktuei dagokienez.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Elastomeroen transformazio- eta bulkanizazio-produktuen ezaugarriak zehaztea eta haien espezifikazioak definitzea.

EI1.1 Produktuaren informazio teknikoa interpretatzea, eta lortu beharreko kalitateak identifikatzea.

EI1.2 Ekoitzi beharreko artikuluen informazioa interpretatzea, eta hauek identifikatzea:

- Erabili beharreko tresneria eta erremintak.
- Molde edo matrizearen kota giltzarriak.
- Kontrol-tresnak eta -gailuak.
- Egin beharreko eragiketen sekuentzia, autokontrollekoak barne.
- Kontrolleko aldagaiak eta parametroak.

EI1.3 Pneumatikoaren zatiak identifikatzea, bai eta haien ezaugarriak eta pneumatikoan dituzten funtzioak ere.

EI1.4 Prozesuari eta produktuari dagozkien segurtasun-arau espezifikoak aplikatzea.

EI1.5 Eragiketa-fasean dagoen produktuaren kontrol primarioko eragiketak deskribatzea, bai eta produktu bukatuarenak ere.

EI1.6 Produktu transformatuaren erabilera industrial nagusiak deskribatzea.

EI1.7 Kautxuzko eta latexezko artikuluen transformatuaren akats nagusiak zerrendatzea.

EI1.8 Kautxu-mota desberdinak birziklatu eta degradatzeko prozesuak ingurumenaren kontserbazioarekin erlazionatzea.

##### Edukiak

#### 1. Kautxu eta latexezko azken produktuak.

- Azken produktuaren kalitatea.
  - Ekoitzi beharreko artikuluen informazio teknikoa interpretatzea.
  - Egin beharreko eragiketen sekuentzia identifikatzea.
  - Azken produktuaren kalitatearen eragina duten aldagaiak. Formulazioaren, ekoizpenaren eta transformazioaren arteko harremana.
  - Ekoizpen-faseetan dagoen produktu baten kontrol primarioko eragiketak.
  - Artikulu transformatuaren akats nagusiak.
- Kautxuzko eta latexezko artikuluen nagusien fabrikazioa.
  - Pneumatikoak.
  - Uhal garraiatzaileak.
  - Transmisio-uhalak.
  - Hodiak eta tutu malguak.
  - Kable elektrikoak.
  - Arrabol-estaldura.
  - Albeolo-gomazko artikulak.
  - Oinetakoak.
  - Latexezko artikulak, murgiltze bidezkoak. Hari elastikoa. Latexaren beste erabilera batzuk.
- Artikuluen sailkapena eta aplikazio-industriak.

#### 2. Kautxu eta latexezko produktuak birziklatzea.

- Ingurumen-degradazioa eta -inpaktua.
- Birziklatze-teknikak. Birrinketa eta mikronizazio mekanikoa. Kriogenizazioa. Erabileraz kanpoko pneumatikoak birziklatzea.
- Balorizazioa.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0727 Kautxuaren eta latexaren nahasketen transformazioa eta bulkanizazioa.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Kautxua transformatzeko eragiketak.